

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Laurak bat

KARAITZETZKO mendi ugari da gure herrian. Karaitzaren osagai karea, garai bateko bizidunen hondakinetatik sortua omen da. Ez dakit zenbat milioi urtetan pilatutako hezur, oskol eta abar jasotzen dituen harria. Zaletua da karea, ur zalea. Lar maitatua, urak hil egiten du. Kare bizia hil egiten du eta hil ondoren desegin. Urtzeraino desegin eta gatzalegez nahasian eramán. Euria latz egiten duen lurretan, hurrengo mendiak sortzeko karea eramán eta pilatzen ari da ura. Eta lurra kare premian. Premia hori gosete bihurtzen da buztin lurretan. Eta gosez den lurra lantzen duenak, zer arraio jan behar du?

Makina bat euskaldunen gosea baretu du kareak. Eguzkia nora, Frantziako eta, batez ere, Espainiako inperioen trapu zikinak hara, bon-bon ibili eta ondorengo garai beltzetan, kaletarra zen euskaldunen gehiengoak Amerikak beste aukerarik ez zuen izan. Eta Amerikara joaten ez zenari, Amerika zetorkion. Artasoroa, alegia.

Artasoroa lurra iraunkorki lantzeko bide erudugarria da. Artoa (*Zea mays*), babarruna (*Phaseolus vulgaris*), kurkubiak edo kuiak (*Cucurbita sp.*) eta arbia (*Brassica napus*) ditu bizilagun. Artoa emalea da, ordura arte ehotzen ziren gari, garagar, zekale eta artatxikia baino hiruzpasei aldiz emankorragoa. Babarrunaren aihena artoan gora luzatzen da eta

loreak polen xerka eta lekak lur hezetik urruti, haizeetara zintzilikatzen ditu. Arto arteko itzaletan, leka horren aleak eguzki galdatan hazten denak baino azal finagoa izango du. Era berean, babarrunak sustraietan sinbiosian, elkarri laguntzen, duen bakterio

batek lurra nitrogenoz aberasten du, arto eta kuien mahuka! Horien tartetean eta ipularretan kurkubi eta kuiak haziko dira. Uda-soroetako hirutasun santua, arta-babarrun-kuia. Mandio-bete balitxo! Negu parterako, hiru horien artean arbia ereiten zen. Itzaletan ederki erne eta hazi eta hirukotea ihartzerako landare polita azalduko da, hotzetan buruhanditzeko prest. Etekin latza zor soro berari. Horrek gosearen kalean bizi zirenak lurra lantzerá eramán zituen. Milaka eta milaka baserri eraiki zen gure mendietan. Urtea joan eta urtea etorri, ordea, lodi simaurtuagatik lurra ezin emari horri eutsi. Karea falta.



Jipoi galanta. Urte sasoi bakoitzean bere giroa egin behar duela diogu. Udan uda eta neguan hotza. Aurtengo neguan hotzetik ari du, bada. Landareentzako kaltegarriak diren zomorroak eta gaitzak sortzen dituzten onddoak ederki atzeratzen ditu izotzaren gaineko izotzak. Alde ederrekoa izango da landareentzako datorren udaberria, areriorik gabekoa. Baina landarea ere izorratu daiteke hotzaren hotzez. Argazkiko kala, *Zantedeschia aethiopica*, bezala. Ur zale amorratua da kala. Lurpeko sustrai lodikoteatik urtero berritzen du hostaje osoa. Hostoa bera eta honen zortena urtsuak dira, bigunak. Izotz beltzaren antzera, izotzutako elurrak izerdia jelatu eta landarea barrutik jo eta txiki egiten du.